

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2008	Z/g	2008/11/10	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Gatazkaren onargarritasuna. Auzitegiek ebatzi dituzten gaiak edo ebatzi gabe daudenak. Ebazpenen ezeztatena

Erref.: 08/2008

Gasteizen, 2008ko azaroaren 10ean,

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna batzordeburu dela eta Isaac Merino Jara eta Fernando de la Hucha Celador jaunak batzordekide direla, erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Gaia: 2008ko irailaren 26an (izena eta abizenak) jaunak/andreak (erakundea) erakundearen izenean eta beraren ordezkari gisa aurkeztutako eskaera.

I. AURREKARIAK

1. 2008ko irailaren 29an Arbitraje Batzordearen Erregistroan (erakundea) erakundearen (“sozietatea”) ordezkariaren 2008ko irailaren 26ko idazkia jaso da; idazkiarekin batera Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren Bigarren Atalak 2008ko uztailaren 10ean emandako epai baten kopia jaso da, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak administrazioarekiko 583/2004 auzi-errekurtsoaz 2006ko otsailaren 22an emandako epaiaren kontra Estatuko Administrazio Orokorrak aurkeztutako 2399/2006 kasazio-errekurtsoaz emandako epaiaren fotokopia.

2. Idazki horretan sozietateak Arbitraje Batzordearen 2008ko maiatzaren 12ko erabaki bat aipatzen da; erabaki haren bidez Batzordeak ebatzi zuen ezin zela onartu izapidetzerako Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Estatuko Administrazioaren arteko gatazka, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak (erakundea) erakundeari

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2008	Z/g	2008/11/10	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Gatazkaren onargarritasuna. Auzitegiek ebatzi dituzten gaiak edo ebatzi gabe daudenak. Ebazpenen ezeztatena

Sozietate gaineko Zergaren inguruan (2000ko ekitaldia) egindako egiaztapenen ondoriozkoa (Arbitraje Batzordearen erregistroa: 8/2008 espedientea).

Idazkian azaldu den bezala, hori ebazteko arrazoia izan zen Auzitegi Gorenari aurrean aipatutako kasazio-errekurtsoa aurkeztu zitzaiola, Arbitraje Batzordeak pentsatu baitzuen gerta zitekeela Salak epaian Euskal Erkidegoko Auzitegi Nagusiari ematea gatazka ebazteko eskumena. Ondorioz Arbitraje Batzordeak pentsatu zuen bere Araudiko 9. artikuluko bigarren paragrafoan xedatutako aplikatzea zitekeela (Araudia abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onetsi zuen): “inolaz ere ezin aurkeztu izango da gatazkarik justizia auzitegietan ebatzitako edo ebazteko dauden gaiengatik”.

3. Idazkian sozietateak dio Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salak 2008ko uztailaren 10ean emandako epaian (kasazio-errekurtsoa azkentzen duena) hauxe ezarri zuela Zuzenbideko 7. oinarrian: “errekurtsoa aurkeztu duenak eskaera-orrian ez zion eskatu organo judizialari ebazteko zeinek daukan eskumena hika-mika sortu duten jarduketan gainean, Estatuko Administrazio Orokorrek edo Bizkaiko Foru Aldundiak”. Gauza bera dio Zuzenbideko 8. oinarriak, ezartzen baitu “Salak ez zuela aztertu eskumenaren auzia, errekurtsoaren muina prozedura ez betetzea izan baitzen, hain zuzen ere gatazka Arbitraje Batzordean ebatzi beharra”.

Azkenik, sozietateak Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salaren epaiko Zuzenbideko 8. oinarriko hurrengo paragrafoa aipatzen du, hain zuzen ere Arbitraje Batzordearen 2008ko maiatzaren 12ko ebazpena berariaz aipatzen duena. Alde batera utzita Batzordeak Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Estatuko Administrazio Orokorren arteko eskumen-gatazka izapidetzerako ez onartzeko erabili zuen oinarria, hau da, aurrean aipatutako epaiaren bidez ebatzitako kasazio-errekurtsoa ebazteke zegoela, Salak hauxe adierazi du: “hala ere, demanda aurkeztu nahi duenak zer nahi duen ikusirik, gogoan eduki behar da Salak ezin eman izan zuela ebazpenik auzian dagoen eskumenaz; beraz, auzia ez zegoen ebazteko justizia auzitegietan”.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2008	Z/g	2008/11/10	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Gatazkaren onargarritasuna. Auzitegiek ebatzi dituzten gaiak edo ebatzi gabe daudenak. Ebazpenen ezeztapena

4. Auzitegi Gorenaren jarrera kontuan hartuta, sozietateak uste du Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 105.1 artikulua aplikatu behar dela eta Arbitraje Batzordearen 2008ko maiatzaren 12ko ebazpena ezeztatu behar dela.

Sozietatearen ustez artikulua horretan ezarritako guztia betetzen da:

- 1) Ebazpena alderdi guztien kalterako da, izapidetzerako onartu ez den eskumen-gatazka, izan ere “ebatzi gabe dago eta interesdunek ez daukate nora jo, ez administrazio, ez organo judizial, funtsezko auzia ebazteko, hots, zer administrazioak daukan eskumena (erakundea) erakundeak aipatutako zergaren inguruan adierazitako ekitaldian zer egin duen egiaztatzeko, eta horrek babesgabezia dakar”.
- 2) Ezeztapenak ez luke ekarriko legerian onartuta ez dagoen dispentsarik ez salbuespenik, eta ez litzateke egongo aukera berdintasunaren printzipioaren kontra.
- 3) Ezeztapena ordenamendu juridikoaren kontrakoa ere ez litzateke izango.

5. Aurrean azaldu den guztia aintzat hartuta, sozietateak Arbitraje Batzordeari eskatzen dio ezeztatu dezala 2008ko maiatzaren 12ko ebazpena 30/1992 Legeko 105.1 artikulua aplikatuz eta, ondorioz, onar dezala izapidetzerako Zerga Administrazioeko Estatuko Agentziak (erakundea) erakundearen inguruan 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zerga dela eta egindako egiaztapenen ondorioz Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztutako eskumen-gatazka, eta ebatzi dezala.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2008	Z/g	2008/11/10	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Gatazkaren onargarritasuna. Auzitegiek ebatzi dituzten gaiak edo ebatzi gabe daudenak. Ebazpenen ezeztapena

1. Nahiz eta sozietatea zentsu hertsian Arbitraje Batzordearen aurrean abiarazitako prozedurako alderdia ez izan, alderdiak gatazkan dauden administrazioak baino ez dira eta, argi dago bidezko interesa daukela bertan, eta horregatik parte hartu dezake eta eskaerak aurkez ditzake, honako hau kasurako, 30/1992 Legeko 31.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorri (hori Arbitraje Batzordearen Araudiko 8. artikuluan ezarritakoa dela bide aplikatu dakioko hizpide dugun prozedurari).

2. Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salak 2008ko uztailaren 10ean 2399/2006 kasazio-errekurtsoaz emandako epaian berariaz eta inolako ezbaierik gabe ezarri da ezeztatze eskatu den Arbitraje Batzordearen ebazpenak okerreko oinarria zeukala, eman zenean artean ebazteko baitzegoen Batzordeak eskumenik daukanen (erakundea) erakundearen 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zerga dela eta Bizkaiko Foru Aldundiak Estatuko Administrazio Orokorren aurrean aurkeztutako eskumen-gatazka ebazteko. Beraz, argi dago ebazpen hori ezeztatu behar dela. Gainera, ez dago zertan argitu orain ezeztapenaren funtsa 30/1992 Legeko 105.1 artikuluan araututako ezeztapen-ahalmena den, eskatzaileak dioen bezala, edo izapide hutsa izanik organo administratiboak besterik gabe ezabatu dezakeen.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKI DU:

1.- 2008ko maiatzaren 12ko ebazpena ezeztatu da; horren bidez Batzordeak erabaki zuen ezin zela onartu izapidetzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Estatuko Administrazioaren arteko gatazka, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak (erakundea) erakundeari Sozietate gaineko Zergaren inguruan (2002ko ekitaldia) egindako egiaztapenen ondoriozkoa. Horren ondorioz gatazka izapidetzea onartu da.

2.- Erabaki hau erakunde eskatzaileari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Zerga Administrazioko Estatuko Agentziari jakinaraziko zaie.